

GARDENTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Bankako zerbitzuen eskaintzaren gardentasuna eta pertsona fisikoa den bezeroaren babesa arautu dira urriaren 28ko EHA/2899/2011 Aginduan eta ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularrean garatu dira.

Nabarmendu beharreko puntu nagusien artean, kreditu-erakundeek:

- Doan eman behar izango dute kontratatu aurreko informazio guztia. Horrela, banka-zerbitzu jakin bati buruzko erabakia egoeraz ondo jabetuta hartu ahal izango dute.
- Eskainitako banka-zerbitzu ororen funtsezko terminoak ulertzeko azalpen egoki eta nahikoak eman behar izango dituzte.
- Bezeroari dagokion kontratuaren alea eman behar izango diote. Horretan zehaztuta agertuko da eskainiko zaion zerbitzua.
- Interesengatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik kobratutako hartukizun bakoitzeko likidazioaren dokumentua emango dute.

Zentzuzko maileguaren kontzeptua ere garatu du, horrelako eragiketak baimentzeko zuhurtasunezko mailak hobetuta.

Honako araua ezartzeko, www.kutxabank.es interneteko webgunean hurrengo informazioa dago:

- Euroen aurka dibisak edo atzerriko billeteak salerosteko eragiketen trukaneurriak eta horrelako eragiketetan ezarritako komisioak eta gastuak.
- Gordailuen kontuetan dauden isilbidezko zorpekoak edo kreditukoetan dauden isilbidezko gaindituak.
- Bere bezeroei eskaini ohi dizkieten banka-zerbitzuetan ezarritako interes-tasei eta komisioei buruzko informazio publikoa.

Kutxabanke zure esku jarriko ditu araudi honi lotutako hurrengo dokumentuak:

- [Aurreko informazio orokorra](#) (Ordaintzeko Zerbitzuak emateko baldintzen zerrenda-esparrua).
- [Espainiako Bankuaren Gida](#) (Hipoteka-maileguei buruzko informazio orokorra).
- [FIPRE](#) (Hipoteka-maileguei buruzko Aurretiko Informazio Fitxa).